

Hiltzailea nire baitan



Hiltzailea nire baitan

Egilea: Jim Thompson
 Itzultzailea: Miel Anjel Elustondo
 Argitaratze urtea: 2006
 Argitaletxea: Igela

MIKEL GARMENDIA

Aho bete hortz, txundituta uzten zaituzten horietako eleberria dugu *Hiltzailea nire baitan*. Horixe bilatzen du, gainera, Jim Thompsonen, berak esana baita: "Agian irakurleak horixe behar du, harrituta gelditu. Entreenimendu-egarriak ez dio utziko, beharbada, eginkizun izugarri horri ekiten, pentsatzeari, alegia".

Hiltzailea da jaun eta jabe, ez detektibea. Horra Thompsonen ekarpen eta berrikuntza handia.

Lou Ford sheriffa pertsona normala da hasieran, harik eta prostituta batengana joan eta barruan daraman piztia esnatuko zaion arte. Handik aurrera, psikopata hiltzaile horrek aginduko du, berak eramango gaitu hilketaz hilketa, aho zabalik utziko gaituen arrazoitze-modu hotz eta erabatekoa erabiliz.

Ikaragarria da nola sentiarazten gaituen hiltzailearengandik, istorioa lehen pertsonan kontatzen digun psikopatarengandik hain hurbil. Dekadentzia-giro batean kokatua (amets amerikarraren porrota), bizi den gizartearen eta gizarte hori osatzen duen jendearen erradiografia zehatza egiten digu. Goitik behera ezagutzen du jendea, nola funtzionatzen duen gizarteak, faltsukeria, hipokrisia... Ez hori bakarrik, maisua da komunikazioaren alorrean ere, dialektikaren sekretu guztiak ezagutzen ditu: "Belar txarra lekuz kanpo dagoen belarra da".

Horrekin guztiarekin dena biltzen du bere baitan: inor ez da eskapatzen ez eta irakurlea ere. Oso sentrazio berezia izango du hala irakurleak: kanpotik hasten istorioa jarraitzen eta, eleberriak aurrera egin ahala, gero eta harrapatuago sentituko da, harik eta amaieran istorioaren (pertsonaia nagusiaren?) barruan dagoela sentituko duen arte. Denok eramango gaita berekin: "Gutariko bakoitzak akats batekin hasi du jokia, asko nahi genuen eta gutxi lortu dugu, oso zintzo ibili nahi genuen eta oso gaizki ibili gara. Gu denok, lagunok." Ez baita alferrik Jim Thompsonen berak esana: "32 modu daude istorio bat idazteko, eta nik denak erabili ditut, baina trama bat besterik ez dago: gauzak ez dira ematen dutena".

Bere bizitzako egitateak eta nortasuna islatzen dira, halaber, eleberrian, fikzio kriminalaren bitartez, bere ahultasuna indar bihurtuz era bere beldur eta minak arte basa bihurtuz. Egundoko eragina izan du, antza, bere aitaren figurak Jim Thompsonen eta horren islarik argiena, beharbada, Igela argitaletxeak eskuartean dugunarekin batera atera berri duen *1280 arima* eleberri bikaina dugu.

Itzulpenari dagokionez, ondo funtzionatzeaz gain, esamoldetan egindako aukerak bizitasun handia ematen dio euskarazko bertsioari eta oso eskertzekoa da prosa estandarretik haragoko ahalegin hori. Bainaren bat jartzekotan esango nuke batzuetan, tetsuak hobeto kurri dezan, hobe dela esplizitazioa elipsia baino. Adibidez:

-Zu...zera, beharbada mesfidati xamarra zara, ezta?

-Uste dut badakizula ez naizela (?) –esan nuen-

Esango nuke hobe dela horrelakoetan esplizitazioa, kasu honetan: Uste dut badakizula ez naizela *mesfidatia*.

Ez zaitu, ez, berdin utziko liburu honek. Nik, bederen, liburua amaitu eta izandako sentrazioa konpartitu beharra sentitu dut aurrenik.